

Emakume Aske eta Borrokalariak

Feminismo iraultzaile eta antikapitalista



**Ultraeskuinaren
eta euren matxismo
eta homofobiaren aurka,**

**BORROKA
DA BIDE
BAKARRA!**



Ultraeskuinaren eta euren matxismo eta homofobiaren aurka BORROKA DA BIDE BAKARRA!



Frankismoaren nostalgikoen eraso

VOXeko ultraeskuinaren eta PP eta Csko aliatuen amorrua proportzionala da bere ofentsibari aurre egiten diegun guztion gorrotoarekiko. Kongresuko tribunitik astakeria ikaragarriak bota dituzte, adibidez genero indarkeria ez dela existitzen —nahiz eta 2019an 99 hildako utzi zituen indarkeria matxistak, 2014az geroztik daturik altuena— eta gizarteko arazo handiena “diktadura feminista” dela aldarrikatu zuten. Era berean, publikoki iraindu dituzte *Manaden* biktima izan direnak, bortxaketaren kultura sustatuz, inolako lotsarik gabe. Talde bortxaketek inoizko daturik altuena izan zuten urte berean (42 abuztura bitartean), Alonso de Mendoza kongresurako VOXeko hautagaiak “arria y fulana” zela esan zuen Aranda de Dueroko futbol taldeko 3 jokalarik bortxatu zuten adin txikikoa. Antzeko iritzi higuin-garriak adierazi dituzte LGTBI kolektiboaren aurka egin dutenean edo arrazismoaren pozoia hedatzeko etorkinak kriminalizatu nahi izan dituztenean.

Edonola ere, arazoa ez dira agerraldi publikoetan gorrotoa zabaltzeko egin-dako mezuak bakarrik, hitz horiek ekintzetara eramatea baizik. Horixe bera egin-ten ari dira “guraso pinarekin”

M6, ikasle greba feminista, antiarrazista eta antifaxista

Guraso pinaren helburua da ikastetxeek gurasoen baimen idatzia eskatu behar izatea beren seme-alabek ultraeskuinarentzat “polemikoak” diren gaiak lantzeko; hau da, sexu heziketa, emakumeen askatasuna, indarkeria matxistari aurka egitea, homofobia edo arrazismoa. Hezkuntza

publiko, laiko eta zientifikorako eskubidea zapaltzea eta frankismo garaioko eskoletara itzultzea besterik ez da hori, hau da, gure guraso eta aitona-amonek 40 urtez jasan zituzten mezu faxista eta basatiak legeztatzea.

Orduan gertatzen zen bezala, guraso pinak emakumeen, etorkinen eta LGTBI kolektiboaren eskubideak defendatzen dituzten irakasleak jazarzeko ere balioko du. Ezin dugu onartu!

Eragotzi nahi duten ustezko “doktrinamentuaren” etengabeko demagogiak Eliza Katolikoko hierarkiaren laguntza paregabea du. Baina eurak dira gure ikasgeletan doktrinatzat duteak. Beren ordezkari nagusietako batek, Cañizares gotzain eta Apezpiku Konferentziako presidente ordeak publikoki hitz egin du “gay inperioaz” edo bere ustez “gizateriaren mehatxu handiena denaz”: “genero legegaren, genero irakaskuntzaren eta genero ideologiaren mehatxa”. Erakunde horri berari ematen zaizkio urtero-urtero milaka eta milioika euro diru publikotik, erlijio ikasgaiaren bidez mehatxa eta homofoboak zabaltzen jarrai dezan.

Hori dela eta, Ikasle Sindikatuek eta Emakume Aske eta Borrokalariok ikasle greba feminista, antiarrazista eta antifaxista antolatatu dugu martxoaren 6rako. Ikasgelak hustu eta kalean betetz botako ditugu guraso pina eta gure eskubidearen aurkako eraso guztiak.

Ez dira pasako! M8an borrokara!

Aurreko urteetan bezala, Emakume Aske eta Borrokalariok estatu osoan egin diren M8ko batzarretan azpimarratu dugu aurtur ere Greba Orokor Feminista deitu behar dela, mugimendu sindikala eta eragile eta kolektibo guztiak erakarraz, 2018an eta 2019an gertatu zen bezala.

Tamalez, CCOO eta UGTekin eta orain gobernuan dauden alderdiekin lotutako zenbait kidek gure proposamena erabari baztertu dute.

Baztertzeko arrazoiak, gure ustez, akatsa dira eta ez dute batere lagutzen. Ez du zentzurik pentsatzea greba feministak gobernu berria ahulduko lukeela. Izatez, greba orokorren indarra erakustea kolpe latzagoa izango litzateke ultraeskuinarentzat eta bere aliatuentzat eta, era berean, PSOEko eta Unidas Podemosko ministro kontseiluari gure aldarrikapenak betetzeko exijituko genioke.

Indarkeria matxista pairatzen jarraitzen dugun errealitatea da, justizia patriarkala, prekarizazioa, lan eta soldata arrakala bezala, zaintza esparruko zapalkuntza, dependentsiako laguntzetako, hezkuntza publikoko murrizketak eta etxe kaleratzeak bezala. Ezin diogu, eta ez gurek onartu behar, txeke zuririk ematea gobernuari. Gure aldarrikapenak betetzen direla eta benetako aldaketa dagoela bermatu behar dugu, eta hori mugimenduen indarrarekin lortuko dugu. Greba orokor feministak garrantzi handikoa izaten jarraitzen du estrategia horretan.

Emakume Aske eta Borrokalariok ez gatzat bat orain 78ko erregimena, monarkia, epaitegiak eta Konstituzioa gure eskubideak defendatzeko “lubaki” moduan

ikusten dituzten horiek. Hori ez da horrela. Erregimen honek ankerki erreprimitu du Kataluniako herria. Bankaren eta multinazional handien boterea bermatzen du, eta horrekin batera inork aukeratu ez duen erregearen eta bortxatzaileak eta erasotzaileak babesten dituzten epaitegiak. Altsasuko gazteak, txiolarriak, raperoak, ezkerreko gazteak, sindikalistak, Kataluniako independentistak kartzelan sartzen dituzte, eta era berean, lapurtu eta zapaltzen gaituzten enpresariak, bankariak eta ustelei edo erasotzen gaituzten faxistek inpunitatea eskaintzen die.

Ez da eskubiderik lortu parlamentuko bozketa batekin bakarrik; beti lortu dira kaleko borrokariek. Horrela lortzen dira eskubideak eta horrela geldiaraziko dugu bloke atzerakoia.

Aurtengo martxoaren 8an ere, Emakume Aske eta Borrokalariok feminismo iraultzaile eta antikapitalisten bandera altxatuko dugu. Zuzenean arazoaren sustaritari jota —gure askatasuna eragotzi, eskubideak zapaldu eta planeta hiltzen duen sistema kriminala— lortuko dugu zapalkuntza orotik askatzea.

Antola zaitez Emakume Aske eta Borrokalariok eskuin muturraren eta kapitalismoaren aurka borrokatzeko.

ESTATU MAILAKO TOPAKETA FEMINISTA

ANTIFAXISTA ETA ANTIARRAZISTA
Otsailak 22, larunbata
Madril · San Fermin aterpetxea

Kapitalismoa, zu zara esplotatzailea. Zapalduok zutik **10etan**

Indarkeria matxistaren eta eskuin muturraren aurka **16:30etan**
M6ko ikasle greba eta M8ko manifestazioak antolatzen

Mundu osoa astindu du indarkeria matxistaren aurka milioika emakume egindako borroka. Emakume langile eta gazteen eskubideen aldeko mugimenduak indar ikaragarriak erakutsi du eta lurrikara geldiezin bilakatu da, eta Estatu espainiarra nazioarteko borroka feministaren ikur bihurtu da.

Aurrerapausoak ematen jarraitzeko, eztabaidan sakontzeko eta gure zapalkuntza beren garaikur bilakatzen duten horien aurka borrokatzen eta antolatzen jarraitzeko, Emakume Aske eta Borrokalariok eta Ikasle Sindikatuek otsailaren 22an Madrilen antolatuko dugu Estatu Mailako Topaketa Feminista, Antifaxista eta Antiarrazista parte hartzerako gonbidatu nahi zaituztegu. Bileran hau ikasle guztiak, mugimendu feministako kideei langileei, borrokan dauden kolektiboek... dago irekia, eta martxoaren 6ko Ikasle Greba Orokorrak abiatzeko eta martxoaren 8ko mobilizazioak antolatzeko balioko du. Zuen zain gaudela!

Parte hartzeko, eman izena helbide hauetan:
www.libresycombativas.net edo www.ikaslesindikatu.net

Kalean borroka egin dugunon indarrak — indarkeria matxistaren eta justizia patriarkalaren aurka borrokatu duten emakumeena, eskola publikoaren alde borrokatu duten gazteena, erretiro duinaren alde egin duten pentsionistena, errepublikaren eta erabakitze eskubidearen alde borrokatu duen Kataluniako herriarena, etab.— berebiziko garrantzia izan du eskuinari atea ixteko orduan.

Amorru espainolista, atzerakoi eta matxista guztiarekin erantzun arren, ez du-

te lortu PSOEren eta Unidas Podemosen arteko gobernu osoa eragotzea. Murrizketa sozialen eta eskubide demokratikoen aurkako eraso guztiak atzera botatzeko eta indarkeria matxistaren aurka serio aurrera egiteko aukera paregabea dauka, eskuin muturraren aurkako harresia eraikita. Hori lortzeko, ordea, kaleko mobilizazio indartsu mantendu behar da eta gobernu berriari exijitu behar zaio bere aginduak betetzeko eta amore ez emateko bloke erreazionarioaren aurrean.

Voxen jarraitzaileen jazarpen matxista eta mehatxuak

► KONTRAPORTADAN HASTEN DA

EAB.- Iragarri duzue, salaketa krimina- larriko duzue, baina azpimarratu duzue epaitegiek ez dutela konponbidea. Zuen mobilizazio askotan salatu duzue justizia frankista eta patriarkala...

Marina Mata.- Halaxe da; adibide ugari ditugu erakusten dutenak justizia ez dela berbera guztiontzat, klase izaera duen justizia dela. Epaitegiak frankistez josita daude, ez baitzen garbitu diktadorea hil ondoren. Horren adibide garbiak dira erasotzaile eta bortxatzaileak absoltitzen dituzten sententziak eta Juana Rivas bezalako biktimak kondenatzen dituztenak. Txiolarriak, sindikalistak, politikari independentistak edo Altsasuko gazteak atxilotzen dituzte, baina monarkak, enpresari zapaltzaileak, etxetik kaleratzen gaituzten bankariak edo lapurtzen dituzten ustelak babesten dituzte.

Bistan da, guk jasan ditugun eraso horiek Inés Arrimadasek edo Cayetana Álvarez de To-

ledok jasan izan balituzte, albisteak horrekin hasiko lirake eta fiskaltzak eskua sartu eta atxilotuak leude. Baina egocera desberdina da gu bagara. Hori dela eta, Voxen aurkako salaketa honen gakoak da mobilizazioarekin eskutik helduta joatea. Horrela lortu genuen La Manada auziko sententzia aldatzea.

EAB.- Elkartasunerako deialdi publiko bat egin duzue ultraeskuinaren aurka abiatu duen kanpaina honi aurre egin eta M6ko ikasle greba babesteko. Zein izan da erantzuna?

CL.- Ikaragarria. Salaketa jarriko genuela iragarri genuen egun berean, hezkuntza komunitatearen eta hainbat kolektiboren babesarekin egin genuen. CCOO, CEAPA, UGT, STES, CGT, COBAS, pentsionisten koordinadora, Arcópolis, Lesbiana, Gay, Trans eta Bisexualen Estatu mailako Federazioa... Eta ehunka elkartasun mezu jasotzen jarraitzen dugu, kolektibo feministena, ekintzaileena edo Podemos bezalako alderdiena. Guztion aurkako eraso da

eta batera erantzun behar dugu. Hori dela eta erakunde, elkarte eta kolektibo guztiak eskatzen diegu babes gaitzatela, mezu, bideo edo argazki bidez gure sare sozialetan partekatuta edo sindicato@sindicatodeestudiantes.net / somoslibresycombativas@gmail.com helbideetara bidalita eta, garrantzitsuenak, martxoaren 6ko ikasle greba feminista babestu eta zabaldua, ikasgelak hustu eta kaleak betetzeko. Hori izango da atzerakoi horien aurkako erantzun hobere- na eta prestatuta hoberena M-8an berri- rriro altxa gaitzen. Kaleak hartuko ditugu emakumeen eskubideen, lan eta soldata aukera berdintasuna- ren alde, indarkeria matxista- ren eta justizia patriarkalaren aurka, zapalkuntza kapita- lista borrokatuz. Argi eta garbi utziko dugu faxis- moa ez dela pasako!



VOXen jarraitzaileen

JAZARPEN MATXISTA

eta mehatxuen kanpaina **Emakume Aske eta Borrokalarien eta Ikasle Sindikatuaren aurka**

“Guk jasan ditugun eraso horiek Inés Arrimadasek edo Cayetana Álvarez de Toledo jasan izan balituzte, albistegiak horrekin hasiko lirateke eta atxilotuak leudeke”

Urtarrilaren 20an, Emakume Aske eta Borrokalariak eta Ikasle Sindikatuak publiko egin zuten martxoaren 6rako Guraso pinaren aurka deitutako ikasle greba feminista, antifaxista eta antiarrazista. Geroztik, matxismoaren eta faxismoaren estoldak martxan jarri dira mugimenduari beldurra sartu eta isilarazteko. Voxen eta jarraitzaileen sare sozialetatik milaka mezu iraingarri bidali ziren, bortxaketaren kultura eta homofobia babestuz, frankismoa goraiatuz eta bozemaileak mehatxatuz.

Elkarrizketa egin diegu eraso horien biktima zuzenak izan direnei: Coral Latorre Ikasle Sindikatuko idazkari nagusia, Marina Mata, antolakuntza idazkaria eta Ana García, Emakume Aske eta Borrokalarien bozemailea. Hirurak Ezker Iraultzaileko kideak ere badira.

Emakume Aske eta Borrokalariak.- Begi bistakoa dirudi egoera honen abiapuntua dela ikasle greba orokorra iragarri izana. Zer iritzi duzue Voxen eta bere jarraitzaileen jazarpen kanpaina honi buruz?

Coral Latorre.- Guraso Pina defendatzen dutenek benetan zer pentsatzen duten erakusten du. Milaka mezu horietako gehiene-

tan, emakume izateagatik iraintzen gaituzte. Batzuk hona ekarri nahiko nituzke, nahiz eta gure webgunean ikusi ditzakezen:

“Más MATEMÁTICAS y menos chupar navos”.

“Pero INÚTILES, ‘la derecha’ no quiere dar charlas de como meterse un pepino por el culo! INÚTILES!”.

“Jajajajaa no se puede ser más patéticas..... Bueno si... ‘Y LA CULPA NO ERA MIAAAA!!.....’.

“Al rechazar el pin parental están retratándose como obsesas del sexo y el adoctrinamiento comunista”.

“Deberían poner un pin parental para que no salgan tan feas como vosotras, guarras”.

“Que siiiii que ya hemos pasado gilipollas!!!! Pasamos, arrasamos y os masacramos. (...) Tontas! Pasamos y ganamos. Queréis que pasemos de nuevo? Pasaremos. VIVA ESPAÑA Y VIVA FRANCO!!!”.

Sinestezina da. Horixe da Voxen ultraeskuina eta hor ikusten da zer egiteko gai diren. Urdanga, itsusi eta halako irainak egiten dizkigute eta bortxaketaren kulturaren eta frankismoaren apologia egiten dute. Gero, “askatasunaren defentsaz” hitz egiten digute, baina 40 urtez diktadura odoltsu batekin gure eskubideak zapaldu zituzten berberak dira. Guraso pina eraso handiago baten abiaburua besterik ez da. Hezkuntzaren aurkako gurutzadarekin hasi dira, baina geldiarazten ez baditugu, urrunago joango dira. Horregatik kaleko mobilizazioarekin erantzun behar diegu. Hori da eskuin muturrari erantzuteko modu bakarra.

Ana García.- Gure deialdiaren aurka amorrutaz erantzun bade, beldurra duelako izan da. Horixe bera izan da eskuin muturrak beti erabili duen taktika, mobilizazioen bidez aurre egiten diegunean agerian uzten baitugu gure indarra eta beren ahulezia. Diputatu asko izan ditzakete, baina mareen manifestazioetan, duintasun martxetan, M8ko mobilizazioetan, pentsionisten borroketan, klima alaketaren aurkako grebetan parte hartu dugun milioika langileak indar geldiezin gara.

2. ORRIALDEAN JARRAITZEN DU ▶



**EZKER
IRAULTZAILEA**

633 133 818
askeetaborrokalariak@gmail.com
www.libresycombativas.net



11. zenbakia